

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3998

AGINDUA, 2017ko uztailaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmaitetarako euskarazko ikasmaterialez inprimatuaren edizioari zuzendutako diru-laguntzetara biltzeko deia egiten duena (EIMA 1).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Heziberri 2020 plana onartu zuen. Heziberri 2020 planaren helburua hauxe da: Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea, hezkuntzak gure tes-tuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin.

Plan horretan sartuta dago Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa, hezkuntza-eredu peda-gogikoaren ildo nagusiak biltzen dituen proiektua. Marko horrek paradigma aldaketa nabarmena dakar, konpetentzietan oinarritzen den hezkuntza delako. Horrek aldaketak sortu ditu hez-kuntza-etapa guztietako ikuspegi pedagogikoan, ondorioz curriculumak egokitu egin dira.

Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzarako eta Batxilergoko curriculum berriak zehaztu zituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, 237/2015, 236/2015 eta 127/2016 dekre-tuen bidez, hurrenez hurren.

Heziberri 2020 planaren markoan jasotako 5.3 atalean berariaz hitz egiten da ikasmaterialez; besteak beste, hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat etorri behar dutela esanez. Hortaz, ikasma-terialek dekretuek ezartzen dituzten curriculum berrietara egokitu beharko dute.

Horren harira, Unibertsitate aurreko irakasmaitetako curriculum-planteamendu berrien arabera euskarazko ikasmaterialez inprimatuaren edizio kostuak laguntzeko helburua du EIMA 1 diru-laguntza deialdiak.

Deialdi honen prozeduran aplikagarri izango dira diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta berorren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren oinarrizko xedapenak. Baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. Titulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua ere.

Hori guztia gogoan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDEA

1. artikulua.– Agindu honen xedea honako hau da: unibertsitate aurreko irakasmaitetan era-biltzekoak diren euskarazko ikasmaterialez inprimatuaren edizioari zuzendutako diru-laguntzetara biltzeko deia egitea.

2. artikulua.– Agindu honen II. eranskinean daude zehaztuta lagundu daitezkeen edizio-kostuak.

Halaber, diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokionean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

II. KAPITULUA

DIRU-BALIABIDEAK

3. artikulua.– Diru-laguntzen deialdirako lauhun eta hirurogei mila (460.000) euro erabiliko dira. Diru hori Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusietan xede horretarako dagoen aurrekontu sailetik hartuko da.

4. artikulua.– Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu berarekin emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta hortik ez bada gainfinantzaketarik sortzen. Gainfinantzaketa hori emanaz gero, laguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

5. artikulua.– Deialdira bildu eta baldintza guztiak betetzen dituen ikasmaterial bakoitzari dagoen diru-laguntza ez da izango, inongo salbuespenik gabe, ikasmaterial horietako bakoitzarentzat 12. artikuluaaren arabera finkaturiko defizita baino handiagoa.

III. KAPITULUA

IKASMATERIALEN BALDINTZAK

6. artikulua.– Honako laguntza-deialdi honetara biltzen diren ikasmaterialek Heziberri 2020 planeko hezkuntza-eredu pedagogikora eta horren baitan onartutako dekretueta egokitu beharko dute: 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena; 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena; eta 127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Heziberri 2020 planeko hezkuntza-eredu pedagogikoa kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredua izanik, hezkuntza-etapa guztietako curriculumak egokitu behar diren moduan, ezinbestekoa da ikasmaterialek ere egokitzea, curriculumak garatzeko material didaktikoak izateko.

Hortaz, material didaktikoek honako ezaugarriak izango dituzte hezkuntza-eredu pedagogikoa-rekin koherenteak izan daitezzen:

- a) Ikasleen irteera-profilean definitutako oinarrizko kompetentziak lortzearen alde egitea.
- b) Ikasleei eta irakasleei irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen plangintza, garapena eta ebaluazioa egiten laguntzeko mota guztietako materialek izango dira.
- c) Zorroztasun zientifikoa eta hizkuntza egokitu egingo zaizkio ikasleen adinari eta 236/2015, 237/2015 eta 127/2016 dekretuetan araututako curriculumei. Lege-ordenamenduko printzipioak, balioak, askatasunak eta betebeharrak ere agertu eta sustatu behar dira, eta diseinu unibertsalaren eta irisgarritasunaren ezaugarriak bete.
- d) Irisgarriak izan behar dute, bai desgaitasun fisiko, sentsozial edo intelektualen bat duten ikasleentzat, bai ikasteko beste zailtasun batzuk dituztenentzat.

e) Hizkuntza ez da modu sexistan erabiliko, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabekoa bermatuko da.

f) Aniztasun familiarra eta afektibo-sexuala agertuko da ikasmaterialetan, eta gainerako errealitate kulturalak, etnikoak...

7. artikulua.– Ikasmaterialen ezaugarriekin zerikusia duten edukiak eta Heziberri 2020 planarekin lotutako dokumentu eta tresna baliagarriak Hezkuntza Sailaren honako helbidean aurki daitezke: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>

8. artikulua.– Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu honako argitalpen hauek: bibliofilo-liburuak; copyright-a, partez edo osoz, hauetako bat duten argitalpenak: herri-aginteenak, zuzenbide pribatuko herri-aginteenak edota herri-aginteen parte-hartze nagusia duten sozietate pribatuenak; doan banatzekoak diren argitalpenak; liburu-klubek edo antzekoek bazkideentzat bakarrik argitaraturikoak; fotokopia edo multikopia bidez prestatutako ikasmaterialak.

9. artikulua.– Ikasmaterial motari dagokionez, oinarrizkoak ala osagarriak izango dira.

Hauek dira ohikoenak:

Oinarrizko ikasmaterialak
Ikaslearen testu-liburua
Ikasleak euskara eta euskal literatura ikasteko testu-liburua
Ikaslearen lan-koadernoak
Oinarrizko irakurgaia
Irakaslearen gida-liburua

Ikasmaterial osagarriak
Kontsulta-liburua
Irakasleen prestakuntzarako materiala
Eskola aldizkaria
Horma-irudia
Hiztegia
Mapa
Metodoa

Zerrendan agertzen ez den bestelako ikasmaterial bat aurkeztu badu, diru-laguntza eskatzailerak zein material mota den zehaztu beharko du.

10. artikulua.– Originaltasun-mailari dagokionez, ikasmaterialak honelakoak izan daitezke:

a) Testuari dagokionez: sorkuntza-lana (espresuki euskaraz sortua); egokitzapena/itzulpena.

b) Ilustrazioei eta argazkiei dagokienez: ikasmaterial honetarako berariaz sortutakoak; beste zenbait materialetatik hartutakoak.

11. artikulua.– 2016ko irailaren 1etik 2017ko irailaren 5era bitartean argitaratuak izango dira. Argitalpen-data moduan honako hau hartuko da: Lege Gordailuari dagokion Gordailu-aitorpenaren M-5 agiriko administrazio-eginbidean jarritako data.

12. artikulua.– Ikasmaterial defizitarioak izan beharko dute. Hots, beren edizioan izandako kostuak, 2. artikuluan zehaztutakoak, 2017-2018 ikasturteko salmenta bidezko diru-sarrerekin, baita izandako bestelako diru-sarrerekin ere, berdindu edo gainditu ezin dituzten ikasmaterialak.

13. artikulua.– 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoak, bere 30. artikuluan finkatutakoa bete beharko dute.

14. artikulua.– Euskaraz idatzita egon beharko dute. Hala ere, zenbait jakintzagai eta ikasmaterial-mota (A ereduan euskara irakasteko metodoak, hiztegi elebidun edo eleanitzak....) partez euskaraz eta partez erdaraz egonik, horiek ere laguntza-deialdira bildu ahal izango dira.

15. artikulua.– Hezkuntza Sailaren onespina izan beharko dute deialdi honen bidez diruz lagundutako ikasmaterialek. Horretarako, ikasmateriala argitaratu aurretik, onspina eskatzeko agiria eta ikasmateriala aurkeztu beharko ditu laguntza eskatzaileak hezkuntza-administrazioan.

EIMA 1 deialdian diruz lagun daitezkeen ikasmaterial inprimatuen kasuan, Hezkuntza Sailaren onspina jaso ahal izateko hizkuntzaren onspen-azterketa eta didaktikaren onspen-azterketa dira gainditu beharrekoak. Honakoak dira jarraituko diren irizpideak:

a) Hizkuntzaren onspen-azterketa:

Zuzentasunaren azterketa: Euskaltzaindiaren arauak betetzen diren aztertuko da eta erabiltzen den hizkuntza bere oinarritzko ezaugarrietan (joskera, hitzak, ...) egokia den.

Testuinguruarekiko egokitasun-azterketa: Testuaren koherentzia eta elkarreraginezko testuingurua (materiala nork norekin, non eta zertarako erabiliko den) izango dira kontuan.

b) Didaktikaren onspen-azterketa:

Aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, ikasmateriala hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat datorren.

Onspena eskatzeko agiria Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa egongo da eskuragai: https://www.euskadi.eus/diruz_laguntza/2017/eima-4/y22-izapide/eu/

16. artikulua.– Datu ekonomiko eta teknikoaren formularioan adieraziko tiradak bat etorri beharko du diru-laguntza eskatzen duen entitatearen legezko ordezkariak sinatutako idazkian adierazitako tiradarekin. Horren egitasuna baieztatze aldera, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak behar beste egiaztapen-lan egingo du fakturen eta gainontzeko agirien bidez.

17. artikulua.– Lehen argitaraldientzat prestaturik dago, nagusiki, deialdi hau. Hala ere, bigarren edo hurrengo argitalpen birmoldatu edo osatuek ere jaso ahal izango dute diru-laguntza, beti ere berritutako zatiaren arabera.

18. artikulua.– Ikasmaterial oro komertzializatu egin beharko da, herritarrei zuzenduriko banaketa-zirkuituen bidez, edozein herritarrek liburu-dendan eskuratzeko moduan egon dadin. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak baldintza horren betetzea dagokion diru-laguntza finkatu aurretik egiaztatu ahal izango du.

IV. KAPITULUA

ONURADUNAK

19. artikulua.— Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. eta 14. artikuluetan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte deialdi honetako laguntzak eskuratu nahi dituztenek.

20. artikulua.— Legez eratuta egonik, euskarazko ikasmaterial inprimatuak prestatuko eta argitaratuko dituzten enpresa, elkarte eta fundazioak izan daitezke laguntza-jasotzaile.

21. artikulua.— Laguntza-eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.— Zergarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

Betebeharren egiaztatzeaz deialdiaren kudeaketa-organoa arduratuko da, diru-laguntza eskatzen duten entitateei baimena eskatu gabe. Aurreko hori, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua ezarriz egingo da.

Zergak Nafarroako Foru Erkidegoko Ogasunean ordaintzen dituzten entitateek zergak egunean dituztela ziurtatzeko agiria aurkeztu beharko dute.

Zergarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren eta horien egiaztatzearen inguruan, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18., 19. eta 22. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

2.— Jabego intelektualari, egile-eskubideei, Lege-gordailuari eta ISBNari dagozkien lege- betebeharrak betetzea.

3.— Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan zehaztutako betebeharrak gordetzea.

4.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo Erakunde Autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntza eta laguntza eman eta ordaindu ahal izateko.

5.— Halaber, zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten pertsonak edo erakundeek, horren ondorioz, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu badute edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean badaude, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko lege-debekuak barne, ezin izango dute Agindu honetan araututako diru-laguntzen eta laguntzen deialdietara aurkeztu, zigorrak ezarritako aldian.

6.— Europar Batasunak diru-laguntza bat ilegal eta merkatu komunarekin bateraezin gisa deklaratu duen aurretiazko erabaki baten ondoren, berreskuratze-agindu baten zain ez egotea.

7.— Krisialdian dagoen enpresa ez izatea, betiere krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Jarraibideetan xedatutakoarekin bat etorritz (2014-07-31ko AO, C249).

V. KAPITULUA

ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA

22. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta 2017ko irailaren 15ean amaituko da.

23. artikulua.– 1.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2017/eima-1/y22-izapide/eu/>

Tramitazio elektronikoa honako lege-arau hauetan araututa dago: 2012ko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, Administrazio Elektronikoa arautzen duena, eta e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa -PLATEA- ezartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena.

2.– Diru-laguntza eskatzen duen entitateak argitara eman nahi dituen ikasmaterial beste eskabide aurkeztuko ditu.

24. artikulua.– Eskabidearen ondoko izapideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren «Nire Kudeaketak» atalean egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

25. artikulua.– Eskabidearekin eta deialdiarekin zerikusia duten gainerako izapideak egiteko jarraibideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri, eskabideak aurkezteko erabiliko den helbidean.

26. artikulua.– Diru-laguntza eskatzen duten entitateek Euskal Autonomia Erkideko hizkuntza ofizialetatik nahi dutena erabil dezakete eskabidea eta honi erantsitako agiriak aurkezteko. Ondorioz, aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak, bere 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritako moduan.

27. artikulua.– Eskabideak aurkezteak, deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

28. artikulua.– 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena aplikatuta, diru-laguntza eskatzen duen entitateak eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenen bidez honako baldintza hauek egiaztatuko ditu:

1.– Helburu berari zuzenduriko diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturi eskatu izana eta, dagokionean, haiengandik jaso izana adieraztea.

2.– Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik ez izatea, eta laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean ez egotea, beren beregi Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatik lege-debekuen eraginpean.

3.– Laguntza-deialdi honetan diru-laguntzon onuradun izateko jarritako baldintzak betetzen dituela adieraztea.

4.– Legalki eratuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dagokion erregistroan izena emanda dagoela adieraztea.

5.– Entitateari dagozkion agiriak, 29.1 artikuluko a) puntuan zehaztutakoak, lehendik bidaliak badira EAEko Administrazio orokorrera, eta bost (5) urte baino gehiago igaro ez bada, honen esku daudela, non eta noiz aurkeztu ziren adieraztea.

6.– Ikasmateriala argitaratu ahal izateko beharrezkoak diren eskubideen jabe izan eta ondorioz, Jabego Intelektualaren Legeak jarritako arauak betetzen dituela adieraztea.

7.– Europar Batasunak diru-laguntza bat ilegal eta merkatu komunarekin bateraezin gisa deklaratu duen aurretiazko erabaki baten ondoren, berreskuratze-agindu baten zain ez egotea adieraztea.

8.– Krisialdian dagoen enpresa ez izatea adieraztea, betiere krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Jarraibideetan xedatutakoarekin bat etorritz (2014-07-31ko AO, C249).

29. artikulua.– Eskabidearekin batera, diru-laguntza eskatzen duten entitateek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte modu elektronikoan:

1.– Entitateari dagozkion agiriak:

a) Eraketa-eskritura edo aktaren kopia, beti ere bere izaera juridikoaren arabera, ordezkari legalaren izendapena eta IFZren (Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren) kopia aurkeztu beharko da. Eskabidea egiteko entitatearen txartela erabiltzen badu, ez du agiririk aurkeztu beharko.

b) Zergak Nafarroan ordaintzen dituzten entitateen kasuan, zergen betebeharra betea dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskatzaileak eskabide-orri bat baino gehiago aurkezten duenean, a) eta b) puntuetako agiriak bakarrak izan daitezke fitxa guztientzat. Halaber, 1.a) puntuan aipatutako agiriak, lehendik aurkeztuak badira edozein administrazioan, eskatzaileak ez ditu agiri horiek berriro aurkeztu behar izango, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 28. artikuluan agintzen duenari jarraituz. Aurkeztu ezean, eskatzaileak baimena eman beharko du eskabide-orrian, «Aurretik entregatutako dokumentazioa» atalean, eta dokumentu horiek noiz eta zein deialditarako (Saila, Zuzendaritza, programa) aurkeztu zituen argi adierazi, Administrazioak konprobazio-lanak egin ditzan.

2.– Ikasmaterialari dagozkion agiriak:

a) Diru-laguntza eske aurkezten diren ikasmaterial bakoitzeko formulario bat, behar den bezala beteta. Formulario horretan diruz laguntzea nahi den ikasmaterialari buruzko datu tekniko eta ekonomikoak jasoko dira. Formulario hori Euskadi.eus atariko Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2017/eima-1/y22-izapide/eu/>

Formularioaren 5. atalean (Argitalpen kostuen justifikazioa) adierazitako gastu guztien faktura eta justifikazio-dokumentuak gehitu beharko dira.

Diru laguntzaren zuriketari dagokionean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

b) Lege Gordailuari dagokion M-5 inprimakia, gordailuaren aitortpenari dagokiona.

c) Diru-laguntza eskatzen duen entitatearen legezko ordezkariak sinatutako idazki bat, diruz laguntzea nahi den ikasmaterialaren tirada eta lagapen-preziosa ziurtatzen duena.

Entitate batek ikasmaterial bat baino gehiago aurkezten badu, idazki bakarrean ziurtatuko ahal izango ditu horien tiradak eta lagapen-prezioak.

d) Ikasmateriala Euskarazko Ikasmaterialen Katalogoan (EIMA katalogoa) katalogatzeko eskaera fitxa, behar bezala beteta.

Inprimaki hori Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa izango da eskuragai: https://www.euskadi.eus/dirur_laguntza/2017/eima-4/y22-izapide/eu/

e) Argitara emandako ikasmaterialaren bina ale. Ale horien aurkezpena, ezinbestean aurrez aurre egingo da, ahal delarik Herritarrentzako zerbitzuan -Zuzenean- edo Hezkuntza Sailaren egoitzaren batean aurkeztuko da, nahiz tokian tokiko Ordezkaritzetan, nahiz Gasteizko egoitza nagusian, bertako Euskara Zerbitzuaren EIMA 1 programan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 16.4 artikuluan zehazten duen edozein bulegotan ere aurkeztu ahal izango da..

30. artikulua.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eskabidean zer bait gaizki dagoela edo zer bait falta dela ikusten badu, hamar (10) eguneko epea emango dio diru-laguntza eskatzen duen entitate interesatuari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik xede horretarako emandako ebazpena eman ondoren.

31. artikulua.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, «EIMA» deritzon fitxategian jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak kudeatzea eta deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea izango da. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

VI. KAPITULUA

KUDEAKETA ORGANOA

32. artikulua.– 1.– Laguntza-deialdi honen kudeaketa Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari dagokio.

2.– Berriaz eraturako batzorde bat arduratuko da diru-laguntzaren ebazpen-proposamena egiteaz, eta gerta litezkeen gorabeherak bideratzeaz. Honako persona hauek osatuko dute batzordea:

- a) Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria (batzordearen buru).
- b) Euskara Zerbitzuaren burua.
- c) EIMA 1eko teknikaria (batzordearen idazkari).

VII. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZEN KALKULUA, EBAZPENA ETA ORDAINKETA

33. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko prozedura hau izango da:

1.– Beharrezkoak diren datuak eskuratu eta gero, honako honi ekingo zaio:

a) Ikasmaterial horiek dagozkien formularioetan azaldutako datu tekniko eta ekonomikoekin agertzen duten adostasun-maila neurtu, besteak beste, honako puntu hauek bereziki aztertuz: hizkuntza- eta didaktika-onespena, xedea, argitalpen-kostuak, ezaugarri teknikoak, lagapen-prezioa, tirada eta salmenta-kopurua.

b) Agindu honetan jarritako baldintzak betetzen diren ala ez ikuskatu.

c) Ikasmaterial bakoitzaren edizio-kostuen kalkulua eskatu Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpen-alorreko bi adituri. Aditu horiek alde zuzenetik izendatuko ditu Hezkuntzako sailburuordeak.

2.– Aurreko puntuan zehazturikoa egin ostean, adituek edizio-kostuen txostena helaraziko diote ebazpen-proposamena egingo duen batzordeari.

3.– Behar-beharrezkoa ikusten bada, ikasmaterial bakoitzaren edizio-kostuen kalkulua egiten ibilitako bi adituak aritu ahal izango dira batzordearekin, beti ere aholkulari gisa.

4.– Batzordeak ikasmaterial bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa finkatuko du eta, behar bezala arrazoitu ondoren, ebazpen-proposamena egingo du. Horretarako, Agindu honen I. eranskinean azaldurako faktoreetan eta horien ponderazio-indizeetan oinarrituko du bere lana.

5.– Agindu honen 3. artikuluan aurreikusitako diru-kopuru osoa I. eranskinean ezarritako formularen arabera banatuz zehaztuko da diru-laguntza zehatza. Baldin eta esleitutako zenbatekoen batuketara diru-laguntza partida baino handiagoa bada, proportzionalki banatuko da.

6.– Diru-laguntza ez da izango diruz lagundu daitezkeen gastuen % 80 baino gehiagokoa.

34. artikulua.– Diru-laguntza deialdiren ebazpena eman eta argitaratzeko prozedura hau izango da.

1.– Ebazpen proposamena kontuan izanda, Hezkuntzako sailburuordeak laguntza-deialdi honi dagokion ebazpena emango du.

2.– Ebazpen horrek, gutxienez, honako kontu hauek jasoko ditu:

a) Diruz lagundutako ikasmaterialen zerrenda eta ikasmaterial horietako bakoitzari esleitutako diru-laguntza.

b) Diruz lagundu ez diren ikasmaterialen zerrenda, ukatzearen zioa azalduz.

3.– Agindua EHAAn argitaratu eta, beranduenik, sei hilabeteko epean emango da Ebazpena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratuko da (<https://euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/erabakiak/>), eta argitaratu eta bihar ramunetik hasita izango du eragina.

Aurrekoari kalterik egin gabe, organo kudeatzaileak interesdunei egindako jakinarazpenen oharra egin ahal izango dizkiete, SMS mezu edo posta elektronikoen bitartez. Mezuok eskabidean

adierazitako telefono mugikor eta posta elektronikoaren kontuetara bidaliko dira. Nolanahi ere, abisu horiek ez dute izango jakinarazpen baliorik.

35. artikulua.– 1.– Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote diru-laguntza eskatu duten entitateek Hezkuntzako sailburuari, Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

2.– Hartu beharreko ebazpenaren jakinarazpenik egiten ez bada 34. artikuluan esandako epean, ezezko erantzuna bailitzan hartu ahal izango da isiltasuna.

36. artikulua.– Diru-laguntzaren ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita hamar (10) egun naturaleko epean esleitutako diru-laguntzari idatziz berariazko ukoa egiten ez badiote entitate onuradunek kudeaketa organoari, esleitutako diru-laguntza onartutzat joko da.

37 artikulua.– Diru-laguntzak aldi bakar batean ordainduko dira, ebazpena jakinarazi eta, aldi berean, entitate onuradunek esleitutako diru-laguntza onartu egiten dutela egiaztatu ostean.

VIII. KAPITULUA

ONURADUNEN BETEBEHARRAK

38. artikulua.– Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko hirugarrenen erregistroan alta emanda egon behar du laguntza-jasotzaileak, laguntza jaso ahal izateko. Alta emateko edota banku-datuak aldatzeko, lotura honetan (https://www.euskadi.eus/r51-341/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html) dagoen formularioa bete beharko du eta bide elektronikoz aurkeztu.

39. artikulua.– Entitate onuradunek Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

40. artikulua.– Agindu honetan finkatutako edozein eginkizun ez betetzeak edota laguntzak lortzeko ezarritako baldintzetan gezurretan ibiltzeak, jokabide horien ondorioz gerta daitezkeen erantzukizun penalak baztertu gabe, agindutako diru-laguntza galtzea ekarriko du; baita, hala legokiokeen kasuan, aurretik jasotako diru-kopurua atzera itzuli beharra ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearren Testu Bateginak onartzen duen bezala, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (EHAA, 1992ko otsailaren 7koa) zehaztutako prozeduraren arabera dagozkion azterapen-interesak gehituz.

41. artikulua.– Diru-laguntzaren itzulketaren inguruan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.4 eta 37. artikuluetan jasotakoa eta agindu honen 40. artikuluan zehaztutakoa jarraituko da.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako euskarazko eta gaztelaniazko idazkien artean interpretazio-auzirik sortuz gero, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Laguntza programa hau Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko (EB) 651/2014 Erregelamenduaren barruan dago, zenbait diru laguntza mota barne-merkatuarekin bateragarriak jotzen dituen, Itunaren (EBAO 2014, L 187, 2014-06-26) 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz (Kategorien Araberako Salbuespen Araudi Orokorra edo 651/2014 Araudia).

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal da Hezkuntzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 11.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

EIMA programa: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial inprimatuak	EIMA 1 2017
Faktoreak eta ponderazio-indizeak	

Ikasmaterial bakoitzari legokiokeen diru-laguntzaren kopuru zehatza finkatzeko honako faktore hauek hartuko dira kontuan:

- 1) Defiziotaritasun-maila
- 2) Xede-adierazgarria
- 3) Salmenta kopurua
- 4) Originaltasun-maila

1.– Defizitariotasun-maila

Eurotan zehaztuko den faktore hau behar bezala balioztatu ahal izateko, ondoko datu hauek hartuko dira kontuan: argitalpen-kostu ponderatua (AKP) eta diru-sarrerak (DS).

Honatx, horietariko bakoitzaren nondik norakoa:

1.1.– Argitalpen-kostu ponderatua (AKP)

Datu operatibotzat joko den faktore hau honako datu hauen eraginez finkatuko da:

- a) Eskatzaileak eskabide-orrian zehaztutako argitalpen-kostuak.
- b) Goiko horiei, hartarako motiborik izanez gero, egindako zuzenketen ondorio diren datu ekonomikoak.
- c) Ebazpen proposamena egingo duen batzordeak, aholkulari gisa aritutako bi profesionalen laguntzaz zehaztutako datu ekonomikoak. Lan hori egiteko, kontuan izango dituzte Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusian, deialdia argitaratzen den egunean, argitalpenetarako indarrean dauden prezioak, alde batetik; bestetik, ikasmaterialgintzaren berariazko kostuak.

Hona hemen, datu ekonomiko horiei dagokienez egin beharreko bidea:

* Lehendabizi, bi adituek, nork bere aldetik, ikasmaterial bakoitzaren azterketa egin eta horietako bakoitzaren kostua kalkulatu dute.

* Horren ondoren, bi adituek ikasmaterial bakoitzari emandako baloreak hartu eta bien arteko batez bestekoa egingo da.

Adituen balorazioen batez bestekoaren eta argitaletxeak adierazitako argitalpen kostuaren artean txikiena hartuko da ikasmaterial bakoitzaren argitalpen kostu ponderatutzat (AKP) .

1.2.– Diru-sarrerak (DS)

Izendapen horrekin zera adierazi nahi da:

a) Argitaletxe batek berak argitaraturiko ikasmaterial bakoitzaren salmentatik 2017-2018 ikasturtean jasotzea aurreikusten duen diru kopurua. Salmentatiko diru-sarrera horiek 2017-2018 ikasturterako begiz jotako salmenta kopurua (BSK) bider lagapen-prezioa (LP) eraginez zehaztuko dira.

Salmenta kopurua entitate eskatzaileak adieraziko du eskabide-orrian, berak egindako aurreikuspenaren arabera, eta kopuru hori hartuko du kontuan Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak argitaletxearen diru-sarrerak kalkulatzeko, non eta bestelako daturik kontrajartzen ez den. Dena dela, kalkulu horretarako, salmenta kopurua gutxienez tiradaren % 20koa izango da.

Lagapen-prezioa zera da: argitaletxeak banatzaileari ikasmaterial inprimatu bakoitzagatik kobratzen dion prezioa. Argitaletxeak berak adieraziko du, eskabide-orrian, ikasmaterial horren lagapen-prezioa zein izango den.

b) Argitalpen-fase partez edo osoz berdinegatik han-hemendik izandako bestelako diru-sarrerak (HDS).

Hortaz, ikasmaterial bakoitzaren defiziotaritasun-maila kalkulatzeko, Argitalpen Kostu Ponderatuari (AKP), ikasmaterial horren diru-Sarrerak (salmenta bidezkoak eta bestelakoak) kenduko zaizkio:

$$\text{Defiziotaritasun maila} = \text{AKP} - [(\text{LP} \times \text{BSK}) + \text{HDS}]$$

2.– Xede-adierazgarria

Ikasmaterial bakoitzaren garrantzia neurtzeko bi aldagai hartuko dira kontuan:

a) Hezkuntza Sailburuordetzak ezarritako lau Lehentasun indizeak (LI):

1. Indarrean dauden curriculum-dekretuetan zehaztutako eremu, arlo eta ikasgai berriak garatzeko ikasmaterialak, ikasmaita edozein delarik.
2. Batxilergoko, Helduen Hezkuntzako eta Heziketa Zikloetako ikasmaterialak.
3. DBHko ikasmaterialak.
4. LMHko eta HHko ikasmaterialak.

b) Ikasmateriala zein motatakoa den:

1. Oinarrizkoa.
2. Osagarria.

Bi aldagai horien arabera honako balio hauek sortuko dira:

	Ponderazio Indizea		Balioa
	Lehentasun indizea	Ikasmaterial mota	
Xede-Adierazgarria	1.	Oinarrizkoa	1
		Osagarria	0,95
	2.	Oinarrizkoa	0,90
		Osagarria	0,85
	3.	Oinarrizkoa	0,80
		Osagarria	0,75
	4.	Oinarrizkoa	0,70
		Osagarria	0,65

Xede-adierazgarriari formula orokorrean dagokion indar-balioa 0,45 izango da.

3.– Salmenta kopurua

Parametro honen bidez, argitaratutako tiradatik saltzea aurreikusten den ale kopurua balioztatu nahi da. Hartarako erabiliko den indizea honako hau izango da: «2017-2018 ikasturtean begiz jotako salmenta kopurua» zati «ikasmaterialaren argitaratze-tirada».

«Diru-sarrerak» atalean zehaztu bezala, salmenta kopuruak gutxienez tiradaren % 20koa izan behar du.

Eragiketa horren ondorioz lortuko den emaitzaren arabera balioak hauek dira:

	Ponderazio Indizea	Balioa
Salmenta-kopurua	% 81- % 100	1
	% 61 - % 80	0,80
	% 41- % 60	0,60
	% 20 - % 40	0,40

Salmenta-kopuruari formula orokorrean dagokion indar-balioa 0,15 izango da.

4.– Originaltasun-maila

Idazlanaren edota marrazki-irudien originaltasuna neurtzeko, honako sailkapena eta ponderazio-indizeak hartuko dira oinarri:

		Ponderazio Indizea	Balioa
Originaltasun-maila	Testua	Sorkuntza-lana	0,6
		Egokitzapena / Itzulpena	0,15
		Ponderazio Indizea	Balioa
	Marrazki-irudiak	Berariaz sortuak	0,5
		Han-hemendik hartuak	0,15

Ikasmaterialaren originaltasun-maila testuaren eta marrazki-irudien balioak gehituz kalkulatu da.

Originaltasun-mailari formula orokorrean dagokion indar-balioa 0,40 izango da.

Laburbilduz, honako formula hau erabiliko da ikasmaterial bakoitzari dagokion diru-laguntza kalkulatzeko:

$$\text{Diru-laguntza} = \text{Defiziotaritasun maila} (\text{Xede-adierazgarria} \times 0,45 + \text{salmenta kopurua} \times 0,15 + \text{Originaltasun-maila} \times 0,40)$$

Baldin eta esleitutako zenbatekoen batuketa diru-laguntza deialdiaren partida baino handiagoa bada, proportzionalki banatuko da.

II. ERANSKINA

EIMA programa: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA Unibertsitate aurreko irakasmaitarako euskarazko ikasmaterial inprimatuak	EIMA 1 2017
Lagundu daitezkeen euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizio-kostuak	

Lagundu daitezkeen gastuak bi motatakoak izango dira:

1.– Kostu finkoak.

1.1.– Originalen prestatze-lanen kostuak.

a) Nondik norakoa:

Edizio-produkzioari hasiera eman aurretik, euskarazko testuak (jatorrian euskaraz idatziak edo euskarara itzuliak) jaso ostean argialetxeak egindako lanaren ondorioz sortutako kostuak. Hortaz, *testu/edukiaren sortze-kostuak eta itzultze-kostuak ez dira kontuan hartuko.*

Honako kostuak lagunduko dira:

- Hezkuntza Sailak egindako hizkuntza-onespenaren azterketa egin aurretik zein egin ostean bideratu beharreko hizkuntza berraztertzea, egokitzea eta zuzentzea (terminologia, morfosintaxia...).
- Jatorrizko testuaren eitea egokitzea, lanaren egiturak koherentzia izan dezan (azala, kapituluaren eraketa, aurkibidea, izenburu-mailaketa, edukiak, eranskinak...); ortotipografia egokitzea (letra etzana eta lodia; aipuen eraketa zuzena, oharrak, bibliografia, kaxotxeren erabilera zuzena; eta akats ortografikoen zuzenketa (tarte bikoitzak, puntuazioa, letra larriak, etab ...).

b) Balorazioa:

Ikasmaterial bakoitzaren testu idatziaren zailtasun-mailaren arabera karaktereko prezio jakina jarriz egingo da, honako sailkapen honen arabera

Maila	Zehaztasuna	€/ karaktereko
1	Haur Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ikasmaterial samurrak, testu gutxiak.	0,0102
2	Haur Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ikasmaterialak. Haur Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoa ikasleei zuzendutako lan-koadernoak	0,0108
3-5	Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendutako gidaliburuak eta baliabide-karpetak. Horietako bakoitzaren maila aipaturiko ikasmaterialen azterketa fisikoa egin ostean finkatuko da.	0,0114 0,0120 0,0126

Maila	Zehaztasuna	€ / karaktereko
3	Haur Hezkuntza osoko ikasleei zuzendutako oinarrizko ikasmaterial osagarria. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendutako testu-liburuak. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzendutako lan-koadernoak.	0,0114
4	DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendutako lan-koadernoak eta ikasmaterial osagarriak. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzendutako lan-koadernoak eta ikasmaterial osagarriak. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzendutako ikasmaterial osagarriak. Lehen Hezkuntza osorako hiztegiak. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzendutako testu-liburuak.	0,0120
5	DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzendutako lan-koadernoak. DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzendutako ikasmaterial osagarriak. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzendutako testu-liburuak eta ikasmaterial osagarriak. Lehen Hezkuntzako gidaliburuak.	0,0126
6-8	DBH osoko irakasleei zuzendutako gidaliburuak eta baliabide-karpetak. Horietako bakoitzaren maila aipaturiko ikasmaterialen azterketa fisikoa egin ostean finkatuko da.	0,0132 0,0138 0,0144
6	DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendutako testu-liburuak eta kontsulta-liburuak.	0,0132
7	DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzendutako testu-liburuak eta kontsulta-liburuak. DBHko gidaliburuak.	0,0138
8	Batxilergo osoko ikasleei zuzendutako testu-liburuak eta kontsulta-liburuak. Batxilergoko gidaliburuak.	0,0144

1.2.– Edizio diseinuaren kostuak.

a) Nondik norakoa:

- Argitalpenaren definizio grafikoa (azalaren diseinua, diagramazioa, barruko orrialdeen maketazio-jarraibideak, orrialde bereziak...). Kostu horiek honako kasu hauetan baino ez dira kontuan hartuko: edizio-diseinu sortu berri edo molde berriko edizio-diseinua duten ikasmaterialen kasuan; hau da, beste zenbait argitalpenetan, bai euskarazko zein gaztelaniazkoetan, aurretiaz finkatutako diseinua (sorta edo bilduma bati loturikoa) ez duten ikasmaterialak.
- Arte-zuzendaritza, bai edizio-diseinu sortu berri edo molde berriko edizio-diseinua duten ikasmaterialen kasuan, bai aurretiaz finkatutako diseinua duten ikasmaterialen kasuan.

b) Balorazioa:

Honako balio-maila hauen arabera:

Mota	Diseinuaren nondik norakoa	Kostua (€)	
		15 x 21 cm-ra arteko formatua	DIN A4-ra edo antzekora arteko formatua
I. liburu-mota: Testu jarraikiez osatutako orrialde samurra.	Sortu berri edo molde berriko edizio-diseinua.	300 / 1.000	1.000 / 1.500
	Beste zenbait argitalpenetan aurretiaz finkatutako edizio-diseinua (sorta edo bilduma bati loturikoa).	100 / 300	300 / 1.000
II. liburu-mota: Testuez eta ilustrazioez hornitutako orrialde samurra.	Sortu berri edo molde berriko edizio-diseinua.	3.000 / 4.500	4.500 / 7.000
	Beste zenbait argitalpenetan aurretiaz finkatutako edizio-diseinua (sorta edo bilduma bati loturikoa).	1.500 / 3.000	3.000 / 4.500
III. liburu-mota: Jarraikiko testua ez duen orrialdea; ilustrazioez, grafikoz, eta formulez hornitua. Maketazio-ahalegin handiagoa eskatzen du.	Sortu berri edo molde berriko edizio-diseinua.	4.500 / 7.000	7.000 / 9.000
	Beste zenbait argitalpenetan aurretiaz finkatutako edizio-diseinua (sorta edo bilduma bati loturikoa).	3.000 / 4.500	4.500 / 7.000

Ondoriozko balorazioari ikasmaterialaren originaltasun-mailaren araberako honako ponderazio hau ezarriko zaio:

- Euskaraz sortutako testua.....% 100.
- Egokitutako / Itzulitako testua..... % 30.

1.3. – Edizio produkzioaren kostuak.

a) Nondik norakoa:

- Testuak konposatzea.
- Orrialdeak doitzea eta maketatzea.
- Taulak, grafikoak eta eskemak egitea.
- Beharrezkoa denean, irudiak digitalizatzea (ilustrazioak, argazkiak...). Eskatzaileak arrazoizko justifikaziorik ematen ez badu, landutako edo eta erositako argazkiak, ilustrazioak eta marrazkiak digitalizatutzat joko dira. Ondorioz, kontzeptu horri dagokion kostua ez da kalkulatu.
- Beharrezkoa denean, irudien post produkzio digitala eta tratamendua (ilustrazioak, argazkiak...). Eskatzaileak arrazoizko justifikaziorik ematen ez badu, irudien post produkzio digitala eta tratamendua aurretiaz egindakotzat joko da. Ondorioz, kontzeptu horri dagokion kostua ez da kalkulatu.
- Probak zuzentzea.
- Kolore-probak egitea.
- Azken artea eta inprimaketarako pdf-ak sortzea.

b) Balorazioa:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak homologatutako salneurrien arabera.

2.– Kostu aldakorrak.

a) Nondik norakoa:

- Paper-kontsumoa (azala eta barrua).
- Inprimaketa (azala eta barrua).
- Bukaera-lanak (plastifikatzea, berniza...).
- Koadernaketa.
- Manipulazioa.
- Enbalajea.
- CD, DVD eta bestelakoen bikoizketa.

b) Balorazioa:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak homologatutako salneurrien arabera.